



ABALTZISKETA

MAIATZAREN 16KO RALLYESPRINTERAKO DEIA

Maiatzaren 16an, larunbata, Irurako Ikastolaren aldeko VIII. Ñañarri Rallyesprinta egingo da.

Rallyak Alegian izango du irteera, Orendaindik Abaltzisketara eta Amezketan izango du helmuga. Hori dela eta, Alegiatik Orendainerako eta Abaltzisketarako GI-3670 eta Amezketatik Abaltzisketarako GI-2133 errepideak ibilgailuentzat moztu egingo dira. Arratsaldeko **14:00etatik** proba amaitu arte, **20:00ak** aldera arte moztuko da. Segurtasun neurriak direla eta, derrigorrezkoa da, ulertuko duzuen bezala. Egun horretan, ordu tarte horretan, **IBILGAILURIK EZINGO DA ERABILI ERREPIDE ZATI HORRETAN.**

Halere, herritarrek honekin batera bidaltzen dizkizuegun baimen berezi batekin eguerdiko 14:00ak arte ibiltzeko aukera izango duzue. **BAIMEN HAUEK PERTSONALAK DIRA.**

Proba egunean larrialdiren bat izanez gero, **DY**ako 943-464622 zenbakira deitu.

Bestalde sarrera salmentari goizeko 9:00etan ekingo zaio. Horregatik, **9:00etatik 14:00etara**, autoa edo bestelako ibilgailua ahalik eta gutxien mugitzea eskatzen da.

Egun horretan antolatzaileen gomendioak errespetatzea eskatzen da.

Aurrez denoi eskerrak emanez, agurtzen naiz.

Abaltzisketan, 2015eko maiatzaren 8an.

Alkateak